



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2016KO MAIATZAREN 23AN
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Jone Urdanpilleta Urdanpilleta, Alaitz Aizpurua Labaka, Irene Garcia Palacios eta Josune Estella Arranz.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

1.- AURREKO AKTAREN ONESPENA: 2016/05/10EKO OHIKO BILKURA.

Batzarkideek, 2016ko maiatzaren 10eko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- 2016KO GIZARTE ZERBITZUEN ARLOKO EGITASMOAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZA KOPURUAK BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Ikusirik

Usurbilgo Udalak 2005eko ekainaren 17an egindako Udalbatzan Diru-laguntzak Arautzeko Ordenantza onartu zen. Ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2005eko abuztuaren 18an, behin betiko izaerarekin.

Ordenantza honen 1. atalean Norgehiagoka Erregimeneko diru-laguntzen prozedura zehazten da Usurbilgo Udalak diru-laguntzak emateko duen bideetako bat bezala.

2016ko otsailaren 5ean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2016. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntzen oinarriak argitaratu ziren, eskaerak aurkezteko hogei eguneko epea emanez, hau 2016ko otsailaren 29an bukatu zelarik.

Epea amaitu ondoren, guztira 15 elkarte izan dira diru-laguntza eskaera aurkeztu dutenak, iaz aurkeztutako elkarte kopuru berdina.

Eskaerak aztertu ondoren 8 elkartek eskaera osatu gabe aurkeztu zuten. Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen oinarrietan zehazten den moduan, interesatuei hamar eguneko epea eman zitzaien falta zen dokumentazioa aurkezteko.

Aipatutako taldeak eskatutako dokumentazioa epe barruan aurkeztu zuten

Hori horrela, 2016ko apirilaren 13an ospatutako Ezohiko Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzorde informatiboan, 2016. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntzen banaketa proposamenaren berri eman zen.



Usurbilgo Udala

Ondoren, 2016eko apirilaren 18ko bilkuran Diru laguntzen Batzorde Orokorrak, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako teknikariaren txostena kontutan harturik, ebazpen-proposamena egin zuen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaien alegazioak aurkezteko.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu

Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).
- 2016an Gizarte Zerbitzuen Arloan egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2016-02-05)

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA: 2016. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntza kopuru hauek onartzea.

TALDEAREN IZENA	ONARTUTAKO LAGUNTZA % 100	1. ORDAINKETA %50
ACABE	605,13 €	302,56 €
ADEMGI	289,41 €	144,70 €
AECC	710,37 €	355,18 €
AGIFES	710,37 €	355,18 €
AGIPASE	1.026,09 €	513,04 €
ALCER	726,99 €	363,49 €
ATECE	631,44 €	315,72 €
ATZEGI	1.473,36 €	736,68 €
BEGISARE	657,75 €	328,87 €
BIKARTE	815,61 €	407,80 €
GIPUZKOAKO ITXAROPEN TELEFONOA	815,61 €	407,80 €
IZAN FUNDAZIOA	815,61 €	407,80 €
GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKUA	828,63 €	414,31 €
ORTZADAR	578,82 €	289,41 €
PAUSOKA ELKARTEA	868,23 €	434,11 €
Guztira	11.553,42 €	5776,65 €



Usurbilgo Udala

BIGARRENA: Diru- laguntzen lehen ordainketa egitea, %50a.

HIRUGARRENA: Gainerako %50a, eman deneko diru laguntza justifikatu ondoren ordainduko da. Diru laguntza justifikatzeko, entitate edo pertsona onuradunak jarraian zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du, 2017ko urtarrilaren 15a baino lehenago:

- a) Burutu den ekintza bakoitzeko V Eranskina, ahalik eta zehatzen.
- b) Gastuaren egiaztagiri originalak edo fotokopia konpultsatuak. Egiaztagiri hauek, ezinbestez, diru-laguntza eman zeneko helburu eta ekintzei dagozkien gastuei buruzkoak beharko dira izan. Ez dira onartuko beste helburu batzuetarako egindako gastuen egiaztagiriak. Justifikazioa egiterako orduan kontuan hartuko da diru-laguntza ematerako orduan oinarritzat hartu zen gastuaren aurrekontua, eta benetako gastua. Proporzionaltasunaren araua aplikatuko da, beti ere emandako diru-laguntzaren mugaraino.

Fakturretan hauxe agertuko da:

- Erakundearen edo/ta elkartearen identifikazioa.
- Hornitzailearen identifikazioa.
- Fakturaren data.
- Jarduera
- Zerbitzuaren deskripzioa.

Diru-laguntzaren bidez egiten den jarduera antolatzeagatik ez da diru-saririk jasoko.

c) Justifikazioari honakoak erantsi beharko zaizkio: azterketa, programa, publikazio eta horma-irudi iragarleen bi ale. Halaber, jardueraren inguruan sorturiko edozein eratako dokumentazio grafiko zein idatzizko Usurbilgo Udala agertu beharko da jardueraren babesle moduan egingo den publizitate guztian.

d) 2015. urteari dagokion memoria: bertan zehaztuko dira burututako ekintza guztiak eta laburpen ekonomikoa.

e) Diru-sarreraren egiaztagiri originalak edo fotokopia konpultsatuak.

f) Udalak diru-laguntza ekintza jakin baterako izendatzen badu, eta urtean zehar hasierako asmoak beste ekintza batekin ordezkatu nahi badira, udalari asmoaren berri eman behar zaio eta honen oniritzia jaso.

g) Ekintzak egin ahala justifikatu ahal izango dira.

LAUGARRENA: Emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatuz bideratuko dira egitasmo guztiak.



Usurbilgo Udala

BOSGARRENA: Hondakinei dagokienez, Usurbilgo Udalean Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal Ordenantzak eta udalak zehaztutako protokoloak jasotakoak beteko dira.

SEIGARRENA: Aurrikusitako gastua baino txikiagoa egiten bada, dirua itzuli egin beharko da.

ZAZPIGARRENA: Udalak diruz laguntzen dituen ekintzak usurbildar guztiei irekiak izango dira, herritarren artean inolako bereizketarik egin gabe.

ZORTZIGARRENA: Diru-laguntza ordaintzerakoan udalarekin zorra dagoen kasuetan, ez da diru-laguntzarik emango.

BEDERATZIGARRENA: Jasotako diru-laguntza zuritzeko azken eguna 2017ko urtarrilaren 15 izango da.

HAMARGARRENA: Diru-laguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.8000.481.231.03.02.2016 Dirulag: Irekiak: Elkarteen asmoak (**A 152-2016**)

HAMAIKAGARRENA: Intereresatuei akordioaren berri ematea.

HAMABIGARRENA: Kontu-hartzaitzari akordioaren berri ematea, ordainketa egiteko orria erantsiz.

3.- 2016KO INGURUMEN ARLOKO EGITASMOAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZA KOPURUAK BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Alaitz Aizpuruak ez du parte hartu puntu honen eztabaidan eta bozketan.

Esp. Zenbakia: HZ.06/2016-0030

Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko otsailaren 1eko bilkuran, besteren artean 2016ko ingurumen arloko egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak onartzea erabaki zuen.

Oinarrien testu osoa, 2016eko otsailaren 5ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 23. zenbakian, diru-laguntzak aurkezteko epealdia zabalduz. Bertan, hogeitun laneguneko epea ematen zaie interesatuei diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten.

Hamabi eskatzaile aurkeztu dira:

- Xabier Errasti Eskudero
- Jose Antonio Errasti Bengoetxea
- Alaitz Aizpurua Labaka
- Maria Jesus Imaz.-Udarregi Ikastola
- Mikel Usabiaga Sukia
- Aitor Egileta Arribillaga



Usurbilgo Udala

- Oidui Usabiaga Arruabarrena
- Xabier Arruti Landa
- Ana Laura Nuñez Martin
- Mikel Rezola Garcia
- Eñaut Lasarte Agirre
- Joseba Pellejero Alkorta

Oinarrietako 6. artikuluan zehaztutakoaren arabera Nekazaritza eta Ingurumen teknikariak, eskaerak aztertu ostean, dagokion txostena egin zuen.

Oinarrietako 6. artikuluan zehaztutakoaren arabera Nekazaritza eta Ingurumen teknikariak egindako txostena Nekazaritza eta Ingurumen Batzordera eraman zen. 2016ko apirilaren 11ean egindako bilkuran, Nekazaritza eta Ingurumen Batzordeari, Nekazaritza eta Ingurumen teknikariak egindako txostenaren berri eman zitzaion.


Diru-laguntzen Batzorde Orokorrak 2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, zegokion ebazpen-proposamena egin zuen. Oinarriek zehaztutakoaren arabera, ebazpen-proposamena jendaurrean jarri zen 10 egunez. Iragarkia 2016ko apirilaren 27an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 78. zenbakian. Jendaurreko epealdian ez da inolako alegaziorik izan.

Guzti hau kontutan izanik, Diru-laguntzen Batzorde Orokorrak egindako proposamena ezaguturik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: 2016ko ingurumen arloko egitasmoak burutzeko ondoko diru-laguntzak onartzea:

Taldea	Ekintza	Babestutako aurrekontua	Diru-laguntza
Xabier Errasti Eskudero	Etxebitzan Led argiteria jartzeko diru-laguntza	2.063,05 €	2.063,05 €
Jose Antonio Errasti	Etxebitzan Led argiteria jartzeko diru-laguntza	1.416,91 €	1.416,91 €
Alaitz Aizpurua Labaka	Hornitzaile berriztagarria (Goener)	100,00 €	100,00 €
Maria Jesus Imaz - Udarregi Ikastola	Kilometroak 2015 ekitaldiko hondakinen kudeaketa	2.964,50 €	2.964,50 €
Mikel Usabiaga Sukia	Hornitzaile berriztagarria (Goener)	100,00 €	100,00 €
Aitor Egileta	Hornitzaile berriztagarria (Goener)	100,00 €	100,00 €
Oidui Usabiaga Arruabarrena	Hornitzaile berriztagarria (Goener)	100,00 €	100,00 €
Xabier Arruti Landa	Hornitzaile berriztagarria (Goener)	100,00 €	100,00 €
Ana Laura Nuñez Martin	Hornitzaile berriztagarria (Goener)	100,00 €	100,00 €
Mikel Rezola Garcia	Hornitzaile berriztagarria (Goener)	100,00 €	100,00 €
Eñaut Lasarte Agirre	Hornitzaile berriztagarria (Goener)	100,00 €	100,00 €



Usurbilgo Udala

Joseba Pellejero	Hornitzaile berriztagarria (Goiener)	100,00 €	100,00 €
GUZTIRA		7.344,46 €	7.344,46 €

BIGARRENA: Oinarrietako 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, onartutako diru-laguntzen % 75a ordaintzeko agintzea Kontuhartzaitzari, 1-6100-480-172-00-01-2016 (A 6/2016) aurrekontu partidatik:


Taldea	Ekintza	Diru-laguntzaren %75
Xabier Errasti Eskudero	Etxebizitzan Led argiteria jartzeko diru-laguntza	1.547,29 €
Jose Antonio Errasti	Etxebizitzan Led argiteria jartzeko diru-laguntza	1.062,68 €
Alaitz Aizpurua Labaka	Hornitzaile berriztagarria (Goiener)	75,00 €
Maria Jesus Imaz - Udarregi Ikastola	Kilometroak 2015 ekitaldiko hondakinen kudeaketa	2.223,38 €
Mikel Usabiaga Sukia	Hornitzaile berriztagarria (Goiener)	75,00 €
Aitor Egileta	Hornitzaile berriztagarria (Goiener)	75,00 €
Oidui Usabiaga Arruabarrena	Hornitzaile berriztagarria (Goiener)	75,00 €
Xabier Arruti Landa	Hornitzaile berriztagarria (Goiener)	75,00 €
Ana Laura Nuñez Martin	Hornitzaile berriztagarria (Goiener)	75,00 €
Mikel Rezola Garcia	Hornitzaile berriztagarria (Goiener)	75,00 €
Eñaut Lasarte Agirre	Hornitzaile berriztagarria (Goiener)	75,00 €
Joseba Pellejero	Hornitzaile berriztagarria (Goiener)	75,00 €
GUZTIRA		5.508,35 €

Onuradunei ondokoa gogoraraztea: gainerako %25a, eskaera egiteko aurkeztu zen aurrekontu osoari dagokion gastua, eta ez diru-laguntzaz ordaindutakoari bakarrik, justifikatu ondoren ordainduko dela. Eta kontuan izango dira, halaber, oinarrietako 12. artikuluan aipatzen diren aspektu guztiak.

HIRUGARRENA: Emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatuz bideratuko dira ekintza guztiak.

LAUGARRENA: Hondakinei dagokienez, Usurbilgo Udalean Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal ordenantzak eta udalak zehaztutako protokoloak jasotakoak beteko dira.

BOSGARRENA: Diru-laguntza ordaintzerakoan udalarekin zorra dagoen kasuetan, ez da diru-laguntzarik emango.



Usurbilgo Udala

SEIGARRENA: Diru-laguntza zuritzeko azken eguna, dirulaguntza eman dela argitaratu eta 3 hilabetetara izango da.

ZAZPIGARRENA: Oinarrietako 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, onuradunek ondoko beteharrak bete beharko dituzte:

- a) Diru-laguntza emateko eskatzen den jarduera egitea edo eskatutako jokabide hori izatea.
- b) Jarduera egin dela frogatzea. Orobat, laguntza emateko bete beharreko eskakizunak eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzea.
- c) Diruz lagundutako jarduera betetzeko baimen guztiak eskuratzea, eta horietan ezarritakoa betetzea.
- d) Diru-laguntza eskaini duen Usurbilgo Udalak egin beharreko egiaztatze-jarduketei trabarik ez jartzea, ez eta esku-hartzaitzari dagozkion finantza-kontrolako jarduketei, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren jarduketei edota eskumen hori duten bestelako organoen jarduketei ere.
- e) Beste administrazio edo erakunde batzuetatik –publiko nahiz pribatuetatik, estatuko nahiz nazioartekoetatik– helburu berbererako beste diru-laguntzarik jasotzen bada, diru-laguntza eskaini duen organoari horren berri ematea.
- f) Indarrean dauden xedapenen arabera Gizarte Segurantzaren eta Ogasun Publikoaren aurrean dituzten betebeharrak ezagutzea –Usurbilgo Udalak ezarritakoak barne.

Horretarako, eskatzaileek idatzizko aitortzean adieraziko dute Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunera dagoela edo Ogasun Arloko betebeharrak betetzen dituela.
- g) Diruz lagundutako jarduerari buruz, pertsona onuradunak euskara behintzat erabili beharko du ekintzan bertan eta argitaratutako iragarki, ohar, jakinarazpen eta abarretan. Era berean diruz lagundutako jarduerak aintzakotzat hartuko ditu Euskararen Udal Ordenantza, Usurbilgo Udalaren Euskararen Erabilera Plana, UEMAren hizkuntza irizpideak, gainerako araudia eta Usurbilgo herriaren errealitate soziolinguistikoa.
- h) Diruz lagundutako jardueretan eta jardueren iragarpenean hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatu behar da, Pertsonen irudiak erabiltzekotan, emakumeen eta gizonen presentzia modu orekatuan eta ez estereotipatuan islatu behar da, 4/2005 Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legeak agintzen duen modura.
- i) Diru-laguntza gai diren ekintzak bideratzerakoan, hondakinei dagokienez Usurbilgo Udalean Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal Ordenantzak eta udalak zehaztutako protokoloak beteko dira.



Usurbilgo Udala

ZORTZIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei eta Kontuhartzaileari emango zaio.

4.- 2016KO NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA ARLOKO EGITASMOAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZA KOPURUAK BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Alkateak eta Jone Urdanpilletak ez dute parte hartu puntu honen eztabaidan eta bozketan.

Esp. Zenbakia: HZ.06/2016-0029

Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko otsailaren 1eko bilkuran, besteren artean 2016ko nekazaritza eta abeltzaintza arloko egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak onartzea erabaki zuen.

Oinarrien testu osoa, 2016eko otsailaren 5ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 23. zenbakian, diru-laguntzak aurkezteko epealdia zabalduz. Bertan, hogeitau laneguneko epea ematen zaie interesatuei diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten.

Bost eskatzaile aurkeztu dira:


- Joxe Mari Zubimendi Urdampilleta
- Jesus Agirresarobe Arzallus
- M. Dolores Goenaga Igartzazabal
- Jose Antonio Segurola Arregi
- Jose Mari Zabala Irureta

Oinarrietako 6. artikuluan zehaztutakoaren arabera Nekazaritza eta Ingurumen teknikariak, eskaerak aztertu ostean, dagokion txostena egin zuen.

Oinarrietako 6. artikuluan zehaztutakoaren arabera Nekazaritza eta Ingurumen teknikariak egindako txostena Nekazaritza eta Ingurumen Batzordera eraman zen. 2016ko apirilaren 11ean egindako bilkuran, Nekazaritza eta Ingurumen Batzordeari, Nekazaritza eta Ingurumen teknikariak egindako txostenaren berri eman zitzaion.

Diru-laguntzen Batzorde Orokorrek 2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, zegokion ebazpen-proposamena egin zuen. Oinarriek zehaztutakoaren arabera, ebazpen-proposamena jendaurrean jarri zen 10 egunez. Iragarkia 2016ko apirilaren 27an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 78. zenbakian. Jendaurreko epealdian ez da inolako alegaziorik izan.

Guzti hau kontutan izanik, Diru-laguntzen Batzorde Orokorrek egindako proposamena ezaguturik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala

ERABAKIA

LEHENDABIZI: 2016ko nekazaritza eta abeltzaintza arloko egitasmoak burutzeko ondoko diru-laguntzak onartzea:

Taldea	Ekintza	Babestutako aurrekontua	Diru-laguntza
Joxe Mari Zubimendi	Nekazaritza erabilpenerako lurren mantenu gastuak	374,55 €	374,55 €
Jexux Agirresarobe	Oilategiko hobekuntza gastuak	1.410,29 €	1.410,29 €
	Oilategiarekin lotutako gozogintza jarduerarako hirigintza kontsultarako proiektua	490,05 €	490,05 €
M ^a Dolores Goenaga	Artaldea berritzea	1.340,52 €	1.340,52 €
	Txabolaren mantenu lanak	254,43 €	254,43 €
	Makinaria konponketa	48,40 €	48,40 €
	Hildako animaliak. 16 Ganadu txiki	157,44 €	157,44 €
Jose Antonio Segurola	Hildako animaliak. Ganadu haundi 1	34,75 €	34,75 €
Jose Mari Zabala	Hildako animaliak. Ganadu txiki 1	9,84 €	9,84 €
GUZTIRA		4.120,27 €	4.120,27 €

BIGARRENA: Oinarrietako 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, onartutako diru-laguntzen % 75a ordaintzeko agintzea Kontuhartzaitzari, 1-6200-481-412-00-03-2016 (A 7/2016) aurrekontu partidatik:

Taldea	Ekintza	Diru-laguntzaren %75
Joxe Mari Zubimendi	Nekazaritza erabilpenerako lurren mantenu gastuak	280,91 €
Jexux Agirresarobe	Oilategiko hobekuntza gastuak	1.057,72 €
	Oilategiarekin lotutako gozogintza jarduerarako hirigintza kontsultarako proiektua	367,54 €
M ^a Dolores Goenaga	Artaldea berritzea	1.005,39 €
	Txabolaren mantenu lanak	190,82 €
	Makinaria konponketa	36,30 €
	Hildako animaliak. 16 Ganadu txiki	118,08 €



Usurbilgo Udala

Jose Antonio Segurola	Hildako animaliak. Ganadu haundi 1	26,06 €
Jose Mari Zabala	Hildako animaliak. Ganadu txiki 1	7,38 €
GUZTIRA		3.090,20 €

Onuradunei ondokoa gogoraraztea: gainerako %25a, eskaera egiteko aurkeztu zen aurrekontu osoari dagokion gastua, eta ez diru-laguntzaz ordaindutakoari bakarrik, justifikatu ondoren ordainduko dela. Eta kontuan izango dira, halaber, oinarrietako 12. artikuluan aipatzen diren aspektu guztiak.

HIRUGARRENA: Emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatuz bideratuko dira ekintza guztiak.

LAUGARRENA: Hondakinei dagokienez, Usurbilgo Udalean Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal ordenantzak eta udalak zehaztutako protokoloak jasotakoak beteko dira.

BOSGARRENA: Diru-laguntza ordaintzerakoan udalarekin zorra dagoen kasuetan, ez da diru-laguntzarik emango.

SEIGARRENA: Diru-laguntza zuritzeko azken eguna, dirulaguntza eman dela argitaratu eta 3 hilabetetara izango da.

ZAZPIGARRENA: Oinarrietako 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, onuradunek ondoko beteharrak bete beharko dituzte:

- a) Diru-laguntza emateko eskatzen den jarduera egitea edo eskatutako jokabide hori izatea.
- b) Jarduera egin dela frogatzea. Orobat, laguntza emateko bete beharreko eskakizunak eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzea.
- c) Diruz lagundutako jarduera betetzeko baimen guztiak eskuratzea, eta horietan ezarritakoa betetzea.
- d) Diru-laguntza eskaini duen Usurbilgo Udalak egin beharreko egiaztatze-jarduketei trabarik ez jartzea, ez eta esku-hartzailetzari dagozkion finantza-kontrolako jarduketei, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren jarduketei edota eskumen hori duten bestelako organoen jarduketei ere.
- e) Beste administrazio edo erakunde batzuetatik –publiko nahiz pribatuetatik, estatuko nahiz nazioartekoetatik– helburu berbererako beste diru-laguntzarik jasotzen bada, diru-laguntza eskaini duen organoari horren berri ematea.
- f) Indarrean dauden xedapenen arabera Gizarte Segurantzaren eta Ogasun Publikoaren aurrean dituzten betebeharrak ezagutzea –Usurbilgo Udalak ezarritakoak barne.



Usurbilgo Udala

Horretarako, eskatzaileek idatzizko aitorpenean adieraziko dute Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunera dagoela edo Ogasun Arloko betebeharrak betetzen dituela.

- g) Diruz lagundutako jarduerari buruz, pertsona onuradunak euskara behintzat erabili beharko du ekintzan bertan eta argitaratutako iragarki, ohar, jakinarazpen eta abarretan. Era berean diruz lagundutako jarduerak aintzakotzat hartuko ditu Euskararen Udal Ordenantza, Usurbilgo Udalaren Euskararen Erabilera Plana, UEMAren hizkuntza irizpideak, gainerako araudia eta Usurbilgo herriaren errealitate soziolinguistikoa.
- h) Diruz lagundutako jardueretan eta jardueren iragarpenean hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatu behar da, Pertsonen irudiak erabiltzekotan, emakumeen eta gizonen presentzia modu orekatuan eta ez estereotipatuan islatu behar da, 4/2005 Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legeak agintzen duen modura.
- i) Diru-laguntza gai diren ekintzak bideratzerakoan, hondakinei dagokienez Usurbilgo Udalean Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal Ordenantzak eta udalak zehaztutako protokoloak beteko dira.

ZORTZIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei eta Kontuhartzaileari emango zaio.

5.- 2016KO KIROL ARLOKO EGITASMOAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZA KOPURUAK BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Ikusirik


2016ko otsailaren 5ean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kirol egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren, eskaerak aurkezteko hogeitau laneguneko epea emanez. Epea, 2016ko otsailaren 29a, amaitu ondoren, guztira joan zen urteko 12 taldeek aurkeztu dituzte ohiko diru-laguntza eskaerak.

Horrez gain, kultur edo bestelako elkarrekin kirol jarduerak egiteko beste lau eskaera jaso ditugu: UM Klub motor krosetako jarduerak antolatu nahi dituenarena, Javier Espinak Potxoenean yoga jarduerarako diru-laguntzarena eta aurreko urteetan kultur arlotik bideratuta izan diren, Einean Guraso Eskolako Osasun fisiko eta mentala eta dantza ikastaroaren eskaerak eta San Praixku Guraso Eskolako psikomotrizitate ikastaro eta patin ikastaroaren eskaera.

Apirilaren 5ean egindako Kirol Batzordean, 2016ko kirol egitasmoak burutzeko diru-laguntzen proposamenaren berri eman zen.

Ondoren, 2016ko apirilaren 18ko bilkuran Diru-laguntzen Batzorde Orokorra, kirol teknikariaren txostena kontutan harturik, ebazpen-proposamena egin zuen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaien alegazioak aurkezteko.

Alegazio idatzirik jaso ez denez, erabakia behin betikotzat hartu da.



Usurbilgo Udala

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- 2016an kirol egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2016/02/05).

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa:

2016 kirol egitasmoak garatzeko diru-laguntza kopuru hauek onartzea behin betikoz.

Kirol-taldeen ohiko diru-laguntzetarako:

Tximeleta	1.326,68
Andatza MT	3.827,88
Baxurde Txiki	2.068,47
Buruntzazpi	2.159,01
Beterri Sub	328,40
Usurbil FT	5.284,97
Usurbil JC	6.711,17
Makax	667,61
Pagazpe	2.531,29
Usurbil KE	17.877,11
Zubieta Lantzen Txirrindularitza	548,38
Zubieta PT	1.669,04
GUZTIRA:	45.000,00

Kirol elkarteak ez direnen kirol jardueretako:

Javier Espina yoga	24,00
Einean Guraso Elkarte yoga	120,00
San Praixku patin ik.	160,00
San Praixku psikomotrizitatea	240,00
UM Klub	
GUZTIRA:	544,00

Bigarrena: Diru-laguntza ordaintzerakoan udalarekin zorra dagoen kasuetan ez da diru-laguntzarik emango.

Hirugarrena: Diru laguntzen lehen ordainketa egitea, %50a.



Usurbilgo Udala

Laugarrena: Gainerako %50a, eman deneko diru-laguntza justifikatu ondoren ordainduko da.

Diru-laguntza justifikatzeko, entitate edo pertsona onuradunak jarraian zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du:

a) Egindako jardueraren memoria (jarduera, ohikoa edo ez ohikoa izan, I edo II. Eranskinaren arabera), ahalik eta zehatzena. Bertan, diru-sarrerak eta gastuak erantsiko dira.

b) Gastuaren egiaztigiri originalak edo fotokopia konpultsatuak. Egiaztigiri hauek, ezinbestez, diru-laguntza eman zeneko helburu eta ekintzei dagozkien gastuei buruzkoak beharko dira izan. Ez dira onartuko beste helburu batzuetarako egindako gastuen egiaztigiriak. Justifikazioa egiterako orduan kontuan hartuko da diru-laguntza ematerako orduan oinarritzat hartu zen gastuaren aurrekontua eta benetako gastua. Proporzionaltasunaren araua aplikatuko da, beti ere emandako dirulaguntzaren mugaraino.

Fakturretan hauxe agertuko da:

- Erakundearen edo/eta elkartearen identifikazioa.
- Hornitzailearen identifikazioa.
- Fakturaren data.
- Jarduera.
- Zerbitzuaren deskripzioa.

Dirulaguntzaren bidez egiten den jarduera antolatzeagatik ez da diru-saririk jasoko.

Onuradunei ondorengoa gogoraztea: gainerako %50a, eskaera egiteko aurkeztu zen aurrekontu osoari dagokion gastua, eta ez diru-laguntzaz ordaindutakoa bakarrik, justifikatu ondoren ordainduko dela

Denboraldika zurtzekoa dutenentzat, zurtzeko azken eguna 2016ko irailaren 23 izango da eta gainontzekoentzat azken eguna 2017ko urtarrilaren 16a izango da.

Aurreikusitako gastua baino txikiagoa egiten bada, dirua itzuli egin beharko da.

Bosgarrena: Gastuak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4300.481.341.00.01 2016 (A 132-2016) eta 1.4300.481.341.00.08 2016 (A 133-2016) hurrenez hurren.

Seigarrena: Udalak diruz laguntzen dituen ekintzak usurbildar guztiei irekiak izango dira, herritarren artean inolako bereizketarik egin gabe.

Zazpigarrena: Emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatuz bideratuko dira ekintza guztiak.

Zortzigarrena: Hondakinei dagokienez, Usurbilgo Udalean Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal Ordenantzak eta Udalak zehaztutako protokoloak jasotakoak beteko dira.



Usurbilgo Udala

Bederatzigarrena: 3.000 euro baino gehiagoko diru-laguntza denean, ebazpena Udaletxeko iragarki-oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Hamargarrena: Intereresatuari akordioaren berri ematea.

Hamaikagarrena: Kontu-hartzailtzari akordioaren berri ematea, ordainketa egiteko orria erantsiz.

6.- 2016KO KULTUR ARLOKO EGITASMOAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZA KOPURUAK BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Ikusirik

2016ko otsailaren 5ean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren eskaerak aurkezteko hogei laneguneko epea emanez. Hau da, eskaerak 2016ko otsailaren 29a baino lehen aurkeztu behar ziren.

Epea horretan, guztira 20 taldek aurkeztu zituzten eskaerak. Taldeek 134.622 euro eskatu zituzten, iaz baino 17.638 euro gehiago. 80.000 euro zeuden banatzeko.

Soziokultura arloko teknikariak diru-laguntza eskariak ebaluatu ondoren, txostena egin eta apirilaren 12ko Soziokultura Batzordera eraman zuen, honek txostena kontuan hartuta, bere iritzia eman zezan.

Ondoren, apirilaren 18an Diru-laguntzen Batzorde Orokorra ebazpen proposamena egin zuen. Ebazpen proposamen hau apirilaren 27an argitaratu zen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaien alegazioak aurkezteko.

Epe horretan taldeek ez dute alegaziorik aurkeztu. Udalak Ziortza taldeari maiatzaren 9an, "Kanpaldia 2016" ekintza dela eta, oinarrietan jasotako betebeharrak bati buruzko azalpenak eskatu dizkio.


Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- 2016an kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2016/02/05).
- 2016ko diru-laguntzen behin behineko ebazpena (GAO, 2016/04/27)
- Kontuhartzailearen ziurtagiria
- Kultura Teknikariaren txostena

ERABAKIA

Lehenengoa: 2016an Kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza kopuru hauek behin betiko onartzea eta diru-laguntzaren %75a ordaintzea.

Taldea	Diru Laguntza	%75 a
Gipuzkoako Bertsozale elkarte (zb.47)	1.748,23 €	1.311,17 €




Usurbilgo Udala

Etumeta Aek Euskaltegia (zb. 51)	612,50 €	459,38 €
Antxomolantxa (Zb.53)	3.339,25 €	2.504,44 €
Usurbilgo Euskal Kantu Taldea (Zb.56)	2.945,00 €	2.208,75 €
Jexux Artze Kultur Elkarte (Zb.57)	5.493,85 €	4.120,39 €
Bihurri Txiki Ludoteka (Zb.58)	807,50 €	605,63 €
Einean Guraso Elkarte (Zb.59)	1.584,00 €	1.188,00 €
Irru Abesbatza (zb.61)	560,50 €	420,38 €
Lauburu Konpartsa (Zb. 62)	1.650,00 €	1.237,50 €
Zubietako Eskolako Guraso Elkarte (Zb.63)	3.503,40 €	2.627,55 €
Usurbilgo Motor Kluba (Zb. 64)	237,50 €	178,13 €
Orbeldi Dantza Taldea (Zb.65)	1.685,50 €	1.264,13 €
Noaua! Kultur Elkarte (Zb.66)	12.511,90 €	9.383,93 €
Nafartarrak Kultur Taldea (zb. 67)	3.000,00 €	2.250,00 €
Organoaren Lagunak (Zb.68)	2.479,50 €	1.859,63 €
Hitz Aho Udarregi Ikastolako gurako Elkarte (Zb.69)	4.490,65 €	3.367,99 €
Ziortza Gazte Elkarte (Zb.70)	10.720,00 € (Hauetatik 7920 euro eskatutako azalpenaren erantzunaren baitan.)	8.040,00 € (Hauetatik 5940 euro eskatutako azalpenaren erantzunaren baitan.)
San Praixku Guraso Elkarte (Zb.71)	8.379,00 €	6.284,25 €
EHAZE - Antzerki Ekintza (Zb.73)	8.388,90 €	6.291,68 €
Santuenea Kultur Elkarte (Zb.74)	4.861,85 €	3.646,39 €
GUZTIRA	78.999,03 €	59.249,27 €

Bigarrena: Ziortza taldeari kanpaldirako izendatutako 7.920,00 €ko diru-laguntza, Ziortzari eskatutako azalpenaren erantzunaren baitan geratzen da.


Hirugarrena: Ekintza bakoitzari honako diru-laguntza ematea eta lehenengo zatia ordaintzea (%75a).

Taldea		Ekintza	Diru Laguntza	%75
Gipuzkoako Bertso zale elkarte (zb.47)	1	Usurbilgo Bertso eskola	1.748,23 €	1.311,17 €
Etumeta Aek Euskaltegia (zb. 51)	2	Rankungo ipuin kontaketa	427,50 €	320,63 €
	3	Yoga saioa	0,00 €	0,00 €
	4	Sukaldaritza saioa	90,00 €	67,50 €
	5	Diaporamak: Peru	95,00 €	71,25 €
	6	Kultur ekintzak	1.762,25 €	1.321,69 €
Antxomolantxa (Zb.53)	7	Ludoteka	399,00 €	299,25 €
	8	Gaztelekua	798,00 €	598,50 €




Usurbilgo Udala

	9	Olentzeroren etorrera	380,00 €	285,00 €
Usurbilgo Euskal Kantu Taldea (Zb.56)	10	Kantu Entseguak (12-14 saio)	900,00 €	675,00 €
	11	Kantu jira	1.045,00 €	783,75 €
	12	Kantu ekimenak	950,00 €	712,50 €
	13	Miarritzera irteera	50,00 €	37,50 €
Jexus Artze Kultur Elkarte (Zb.57)	14	“Heroiak” Antzezlanak	2.952,60 €	2.214,45 €
	15	“Tonetti anaiak” diskaren aurkezpena	2.493,75 €	1.870,31 €
	16	Berri ona pelikula	47,50 €	35,63 €
	17	“Ikimilikiliklik J.A. Artzeren unibertsoa” erakusketa	0,00 €	0,00 €
Bihurri Txiki Ludoteka (Zb.58)	18	Kantu emanaldia: Olatz Korta	190,00 €	142,50 €
	19	Ipuin Kontalaria: Ixabel Agirresarobe	237,50 €	178,13 €
	20	Ludoteka	380,00 €	285,00 €
Einean (Zb.59)	21	Pintura	720,00 €	540,00 €
	22	Eskulanak	720,00 €	540,00 €
	23	Laboreak	72,00 €	54,00 €
	24	Masajea	72,00 €	54,00 €
Iriuri Abesbatza (zb.61)	25	Urteko ekintzak	560,50 €	420,38 €
Lauburu Konpartsa (Zb. 62)	26	San Isidro	190,00 €	142,50 €
	27	Andoainera irteera	35,00 €	26,25 €
	28	Artisau Azoka	190,00 €	142,50 €
	29	Erle eguna	190,00 €	142,50 €
	30	Buruhandien mantenua	1.045,00 €	783,75 €
Zubietako Eskolako Guraso Elkarte (Zb.63)	31	Udako txokoak	1.800,00 €	1.350,00 €
	32	Aste Kulturala	1.197,00 €	897,75 €
	33	Hitzaldiak	342,00 €	256,50 €
	34	Musika Txokoak	0,00 €	0,00 €
	35	Euskal dantzak	164,40 €	123,30 €
Usurbilgo Motor Kluba (U.M. Kluba) (Zb. 64)	36	II. Ibilgailuen topaketa	237,50 €	178,13 €
Orbeldi Dantza Taldea (Zb.65)	37	Inauterietako dantza emanaldia	285,00 €	213,75 €
	38	Udako jaietan emanaldiak	1.187,50 €	890,63 €
	39	Usurbildik kanpo emanaldia	70,00 €	52,50 €
	40	Maskaradak ikustera	53,00 €	39,75 €



Usurbilgo Udala

		irteera		
	41	Formakuntza ikastaroak	90,00 €	67,50 €
Noaua! Kultur Elkartea (Zb.66)	42	Inauteriak 2016	1.805,10 €	1.353,82 €
	43	Euskarazko laburbira	484,86 €	363,65 €
	44	Sagastiak loretan ospakizuna	1.141,21 €	855,91 €
	45	20. urteurrena	3.641,16 €	2.730,87 €
	46	Plis Plas Txalo eta Jolas	948,84 €	711,63 €
	47	Kulturaldia	3.905,60 €	2.929,20 €
	48	Pelikula emanaldi bat	585,13 €	438,85 €
Nafartarrak Kultur Taldea (zb. 67)	49	Dominika Agergarairi omenaldia	715,00 €	536,25 €
	50	Mintegia: Euskaldunon identitatea edo nortasuna	1.237,50 €	928,13 €
	51	Xiberuko ikastolen aldeko kanpaina	1.047,50 €	785,63 €
Organoaren Lagunak (Zb.68)	52	Donostia Musika Hamabostaldia inguruko Organo kontzertua	1.662,50 €	1.246,88 €
	53	Donostia Musika Hamabostaldia barruan Organojole internazionala	237,50 €	178,13 €
	54	Organo kontzertua (2016-10-16)	437,00 €	327,75 €
	55	Abenduko euskal organo-joleen bilkura	142,50 €	106,88 €
Hitz Aho udarregi ikastolako gurako Elkartea (Zb.69)	56	Merea Mendizabal ikastaroa	892,80 €	669,60 €
	57	Hurrekin harremantzen proiektua	574,80 €	431,10 €
	58	Komiki ikastaroa	424,80 €	318,60 €
	59	Doluaren inguruko hitzaldia	380,00 €	285,00 €
	60	Anorexia, bulimia... elikadurarekiko jarrerak hitzaldia	142,50 €	106,88 €
	61	Aste Kulturala	2.018,75 €	1.514,06 €
	62	Antzerki musikala	0,00 €	0,00 €
	63	Jostailu erabilien azoka	57,00 €	42,75 €
Ziortza Gazte Elkartea (Zb.70)	64	Urteko saioak materialak	712,50 €	534,38 €
	65	Urteko saioen elkarbizitza eta irteerak	150,00 €	112,50 €
	66	Elkarbizitza	180,00 €	135,00 €



Usurbilgo Udala

			7.920,00 € (Eskatutako azalpenaren erantzunaren baitan.)	5.940,00 € (Eskatutako azalpenaren erantzunaren baitan.)
	67	Kanpaldia 2016		
	68	Kabalgata 2017	1.757,50 €	1.318,13 €
San Praixku Guraso Elkartea (Zb.71)	69	Pintura eta eskulan ikastaroa	330,00 €	247,50 €
	70	Euskal dantzak	399,00 €	299,25 €
	71	Santo Tomas eguna	0,00 €	0,00 €
	72	Agiñagako eskola eguna	3.135,00 €	2.351,25 €
	73	lpuin kontalaria	380,00 €	285,00 €
	74	Gabonetako txokoak	270,00 €	202,50 €
	75	Aste Santuko txokoak	270,00 €	202,50 €
	76	Udako txokoak	1.620,00 €	1.215,00 €
	77	Eskola txikien mintegia	0,00 €	0,00 €
	78	Bertso eskola	360,00 €	270,00 €
	79	Ongi etorri Udaberri proiektua	0,00 €	0,00 €
	80	Euskararen eguna	1.615,00 €	1.211,25 €
EHAZE - Antzerki Ekintza (Zb.73)	81	Jauzi! Antzerki egunak	1.900,00 €	1.425,00 €
	82	Hitzaldia: Umorea sentimendu bat baino gehiago	950,00 €	712,50 €
	83	Zerura eroria	2.053,90 €	1.540,43 €
	84	Zirko ikastaroa haurrentzat	360,00 €	270,00 €
	85	Clown ikastaroa gazte eta helduentzat	180,00 €	135,00 €
	86	Putine guardasola+bestelakoak	2.945,00 €	2.208,75 €
Santuenea Kultur Elkartea (Zb.74)	87	Pintura, plastika eta antzerki tailerra	1.266,00 €	949,50 €
	88	Antzerki tailerra	477,00 €	357,75 €
	89	Argazki Lehiaketa	237,50 €	178,13 €
	90	San Juan sua eta sardin jana	0,00 €	0,00 €
	91	Hegazti harraparien erakusketa	0,00 €	0,00 €
	92	Txipli Txapla Tomasen abenturak	1.149,50 €	862,13 €
	93	Gabonak	1.731,85 €	1.298,89 €
		GUZTIRA	78.999,03 €	59.249,27 €



Usurbilgo Udala

Laugarrena: Udalak diruz laguntzen dituen ekintzak usurbildar guztiei irekiak izango dira, herritarren artean inolako bereizketarik egin gabe.

Bosgarrena: Emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatuz bideratuko dira ekintza guztiak.

Seigarrena: Hondakinei dagokienez, Usurbilgo Udalean Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal Ordenantzak eta udalak zehaztutako protokoloak jasotakoak beteko dira.

Zazpigarrena: Diru-laguntza ordaintzerakoan udalarekin zorra dagoen kasuetan, ez da diru-laguntzarik emango.

Zortzigarrena: 2016ko urriaren 31 bitartean egindako ekintzak 2016ko azaroaren 18a baino lehenago zuritu behar dira.
Azaroa eta abenduko ekintzak, berriz, 2017ko urtarrilaren 10a baino lehenago.

Bederatzigarrena: Kultura Alorreko diru-laguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4000.481.334.00.03.2016 (148/2016)

Hamargarrena: Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Hamaikagarrena: Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere behin betiko ebazpenaren berri emango da.

Hamahirugarrena: Kontu-hartzaitzari akordioaren berri ematea.

7.- “HARRERA TALDEA” ELKARTE ASISTENTZIALA ELKARTEA USURBILGO ELKARTEEN UDAL ERREGISTROAN INSKRIBATZEA.

Esp.zk.: ID.17/2016-0254

IKUSIRIK

Usurbilgo Udaleko Udal Erregistro Orokorrean, Jon Ugarte Zinkunegik “*Harrera taldea*” *Elkarte Asistentzialaren* izenean, 2016ko maiatzaren 10ean 1673 zenbakia duen eskabidea aurkeztu duela. Bertan, aipatutako elkarte Elkarte Udal Erregistroan inskribatzea eskatu duela.

Eskabidearekin batera, Irabazi asmorik gabeko elkarte erregistroari buruzko ordenantzaren hirugarren puntuan aipatzen den dokumentazioa ere aurkeztu duela:

- a) Eusko Jaurlaritzako Elkargoen Erregistroan inskribatua egotearen agiri eguneratua.
- b) Elkartearen estatutuak.
- c) Helbide soziala.
- d) Zuzendaritzaren izen osoak.
- e) Titularra elkargoa izango den bankuko kontuaren zenbakia.



Usurbilgo Udala

Gizarte Zerbitzuetako arduraduna den Nerea Altxuk aipatutako elkarte irabazi asmorik gabeko elkarten erregistroan inskribatzearen aldeko txostena egin duela. Txostena espedienteen jaso da eta honela dio txostenaren ondorioak: *“Harrera taldeak garatzen duen jarduera udalaren onurakoa da. Honenbestez, Harrera taldea Elkarte Asistentziala irabazi asmorik gabeko elkarten erregistroan inskribatzearen aldeko txostena egiten dut.”*

KONTUTAN HARTURIK

Udalaren irabazi asmorik gabeko elkarten erregistroari buruzko ordenantza (GAO 2005/08/18).

Gizarte Zerbitzuetako arduradunaren txostena kontutan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA: *“Harrera taldea” Elkarte Asistentziala* irabazi asmorik gabeko elkarten udal erregistroan inskribatzea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta udal kontu-hartzaitzari ematea.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:00etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.